2022 • URTARRILA

# aballarri

## EGAPE IKASTOLAKO BULETINA

EGAPE, URNIETARRON IKASTOLA PUBLIKOA

# EGAPE IKASTOLA KEMENTSU 2021-2022KO ERRONKEN AURREAN
# EGAPE IKASTOLA CON ÁNIMO ANTE LOS RETOS 2021-2022

***Con el inicio del curso 2021-2022 las direcciones de Educación Infantil y Primaria y Secundaria venimos con ganas de afrontar nuevos retos.***

*En este curso 2021-2022 que hemos dado comienzo tenemos una nueva dirección en las etapas de Educación Infantil y Primaria. El relevo dejado por Juan Luis Alkorta y Koro Berasategi lo han tomado Aitziber Zipitria y Ainhoa Matilla, directora y jefa de estudios respectivamente junto a la secretaria Edurne Arcelus. Trabajando conjuntamente con el equipo directivo de Secundaria tenemos como objetivo reforzar el proyecto de la ikastola Egape y afrontar los retos de este nuevo curso con muchas ganas e ilusión.*

*Fomentar y reforzar el uso del euskara es uno de los retos más importantes que tenemos entre manos. Conseguir que nuestro alumnado viva y disfrute en euskera en todo momento y en cualquier lugar. Estos últimos años estamos inmersas en la implantación de metodologías activas: el nuevo material KIMU, el proyecto EKI, la interdisciplinariedad y el aprendizaje-servicio. Seguiremos educando en la diversidad, la coeducación y la igualdad y trabajaremos para seguir mejorando la competencia digital de nuestro alumnado.*

*Por último, seguiremos con la reivindicación del nuevo campus para que Urnieta tenga una ikastola pública digna.*

**2021-2022 ikasturtea hastearekin batera erronka berriei aurre egiteko gogotsu gatoz HH-LH eta DBHko zuzendaritzak.**

Hasiera eman diogun 2021-2022 ikasturte honetan zuzendaritza berria dugu Haur eta Lehen Hezkuntzako etapetan. Juan Luis Alkorta eta Koro Berasategik utzitako lekukoa Aitziber Zipitria eta Ainhoa Matillak hartu dute, zuzendaria eta ikasketa burua hurrenez hurren, Edurne Arcelus idazkariarekin batera. Egape ikastolako proiektua indartzen jarraitzeko gogoz eta ilusioz dauzkagu eta Bigarren Hezkuntzako zuzendaritza taldearekin elkar lanean ikasturte berri honetako erronkei aurre egiteko irrikitan gaude.

Euskararen erabilera sustatu eta indartzea lehenetsiko dugu. Egape ikastola euskararen arnasgune izatea da xede: Euskaraz bizi eta euskaraz gozatzea uneoro eta edonon! Horretarako, gizartearen inplikazioa bultzatu beharko dugu! Aspalditik, metodologia aktiboetan buru-belarri murgilduta gabiltza: KIMU material berria, EKI proiektua eta horrekin batera, arloartekotasuna eta ikasketa zerbitzua. Aniztasunean, hezkidetzan eta berdintasunean hezten jarraituko dugu eta gure ikasleen konpetentzia digitala ere ahaztu gabe.

Azkenik, eta urte luzeetan bezalaxe, Egape Ikastolako Kanpus berriaren aldarrikapenarekin jarraituko dugu, lehenbailehen Urnietako herriak ikastola publiko duin bat izan dezan.



# EGAPEN IKASLEA ARDATZ

Haur Hezkuntzak garrantzi berezia du haurraren garapenean. Bizitzako oinarriak garatzen hasiko da etapa honetan eta horretarako Egape Ikastolak, Haur Hezkuntzan, adin honetako haurrak behar dituen bizipenak eta esperientziak bizi ditzan diseinatuko du bere proiektua.

Etapa honetan haurra da protagonista eta bera da bere ikaskuntza-prozesua eraikitzen duena. Horretarako, beharrezkoa duen testuinguru aberats bat diseinatuko du Ikastolak. Haurraren beharrak hauteman eta hauei erantzuteko beharrezko espazio, material, denbora, esperientzia… izango ditu aztergai, beti ere, haurraren ongizatea bermatze bidean.

Esperientzia da haurraren ikasgai nagusiena. Besteekin izandako harremanek, jolasek eta ekintzek sorraraziko dizkieten bizipenek eraikiko dute haurra osotasunean. Eta horregatik, manipulatzeko, esperimentatzeko eta ekiteko aukerak eskainiko dizkiegu, beraien motibazioa ardatz izanik ikasketa esanguratsu batera bideratuko ditugunak.

Bide honetan, mugimendu autonomoaren metodologiak eta euren interesekoak diren proiektuek osatuko dute testuinguru aberatsa, hezitzailearen begiradapean, unean-uneko erabakiak hartuz haurrari bere garapenean aurrera egiten lagunduko die.

Haur Hezkuntzan hasitako bideak, Lehen Hezkuntzan izango du segida. Etapa honetan bere errealitatetik eta bizipenetatik abiatuta inguruarekin erlazionatzeko, hura ulertzeko eta bertan eragiteko baliabideak eskainiko zaizkio. Horretarako Lehen Hezkuntzako lehenengo mailetan konpetentzietan oinarritutako KIMU proiektua izango dute bidelagun. Errealitate hurbileko egoeretan kokatzen du ikaskuntza KIMU proiektuak eta ikasleen oinarrizko konpetentziak garatzea du helburu.

KIMUk EKI proiektuarekin osatuko du Lehen Hezkuntzako etapa. EKi, Lehen Hezkuntza 4.mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osora zabaldutako proiektu integrala da. Ikasleak, konpetentziak eta bizitza pertsonaleko zein sozialeko egoerei aurre egiteko beharrezkoak diren trebetasunak bereganatuko ditu.

# EL ALUMNADO, EJE DE EGAPE

*La Educación Infantil tiene especial importancia en el desarrollo del niño y de la niña. La Ikastola Egape, en Educación Infantil, diseñará su proyecto para que el alumnado de esta edad obtenga las vivencias y experiencias que necesita.*

*En esta etapa el protagonista es el niño o la niña y él o ella será quien construya su propio proceso de aprendizaje. Para ello, la Ikastola diseñará un contexto rico. Se centrará en los espacios, materiales, tiempos y experiencias necesarias para detectar y responder a las necesidades del niño o la niña, con el fin de garantizar su bienestar.*

*La experiencia es la principal asignatura. El niño o niña se formará por las vivencias que les generarán sus relaciones con los demás, sus juegos y sus acciones. Y por ello, les ofreceremos oportunidades para manipular, experimentar y emprender, orientadas a un aprendizaje significativo centrado en su motivación.*

*En este camino, la metodología del movimiento autónomo y los proyectos que sean de su interés conformarán un contexto rico, bajo la supervisión del educador o educadora, que, tomando decisiones puntuales, ayudará al niño o niña a avanzar en su desarrollo.*

*El camino iniciado en Educación Infantil tendrá continuidad en Educación Primaria. En esta etapa se le proporcionarán recursos para relacionarse, comprender e influir en el entorno a partir de su realidad y sus vivencias. Para ello les acompañará el proyecto KIMU, basado en las competencias en los primeros cursos de la Educación Primaria, que sitúa el aprendizaje en situaciones de realidad cercana y que tiene como objetivo el desarrollo de las competencias básicas del alumnado.*

*KIMU completará la etapa de Primaria con el proyecto EKI. Este es un proyecto integral que se extiende desde 4º de Educación Primaria a toda la Educación Secundaria Obligatoria. El alumnado adquirirá las competencias y habilidades necesarias para afrontar situaciones de la vida personal y social.*









# NAOIMH FLEMING - GURE HIZKUNTZA LAGUNTZAILEA

Aurten, hizkuntza laguntzaile irlandar bat etorri zaigu Egape ikastolara, DBHko ikasleekin ingelesez hitz egin eta ikasleen ahozko jarduna lantzera.

Egapek hizkuntza laguntzaile bat izan du azken sei urteetan, ikasleek hartu-emanak ingelesez ahalik eta era naturalenean izaten laguntzeko. Iaz Mike Veenstra izan genuen, eta aurten Naoimh Fleming etorri da. Dublinekoa da Naoimh Fleming, baina azken urtea euskaldunen artean igaro du, Zarautzen bizi baita familiarekin. Irlandakoa izanik, Naoimh-ek aurkezpen bat prestatu zuen, ikasleek Irlanda eta Irlandako kulturaren berri izateko. Aurkezpen hori aitzakia izan da 4. DBHko ikasleak euskal kulturaren garrantziaz jabetzeko eta euskal mitologiaren inguruan aritzeko. Horretaz gainera, Irlandan Halloween eta Euskal Herrian Gau Beltza ospatzen direnez, Naoimh maskarak egiten aritu da 3. DBHko ikasleekin, artea eta hizkuntza uztartuz.

1. DBH eta 2. DBHko ikasleek, berriz, beste bide batzuk landu dituzte, eta Naoimhekin beren ingelesa maila sakondu dute, bai hiztegia ikasiz eta bai ikasitako egiturak praktikatuz.

Naoimh ongi moldatzen da gazteekin. Argi dago aurten ere hizkuntza laguntzaileak sintonia ona lortu duela Egapeko ikasleekin. Zorte onekoak gara gure hizkuntza laguntzaileekin!

# NAOIMH FLEMING - NUESTRA AUXILIAR DE CONVERSACIÓN

*Este curso nos acompaña una auxiliar de conversación irlandesa, para practicar en inglés con el alumnado de ESO.*

*En los últimos cinco años en Egape hemos contado con la ayuda de una auxiliar de conversación para facilitar la comunicación oral en inglés de nuestro alumnado. El curso anterior estuvo entre nosotros/as Mike Veenstra, y este curso tenemos la ayuda de Naoimh Fleming. Naoimh es de Dublín, Irlanda, pero este último año lo ha pasado en Euskal Herria, ya que vive con su familia en Zarautz. Naoimh decidió hacer una presentación de Irlanda y su cultura. Esta presentación nos sirvió para que el alumnado tomara conciencia de la importancia de la cultura vasca y a su vez recordara personajes mitológicos vascos. Tomando como idea que en Irlanda se celebra Halloween y en Euskal Herria Gau Beltza, Naoimh ha estado trabajando unas máscaras en las clases de arte con el alumnado de 3º ESO. Así hemos unido dos disciplinas: el inglés y el arte. El alumnado de 1º y 2º de ESO se centra sobre todo en practicar con Naoimh tanto el vocabulario como las estructuras aprendidas en inglés. Está claro que Naoimh ha logrado una buena sintonía con nuestro alumnado. La verdad es que somos muy afortunadas/os con nuestros auxiliares de conversación.*



EGAPE IKASTOLA

# EGAPE

Urnietarron ikastola publikoa



# MATRIKULA
# MATRÍCULA
# 17-28
## URTARRILA
ENERO

## BILERA INFORMATIBOA
REUNIÓN INFORMATIVA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 13 | Urtarrila<br>Enero | 2 URTE<br>2 AÑOS | 17:00<br>Etxeberri |
| 12 | Urtarrila<br>Enero | DBH<br>ESO | 17:00<br>Lekaio |

www.egape.eus

Etxeberri 3/4, Urnieta.
943 00 95 58
egape@egape.eus

Lizardi kalea, 5, Urnieta.
943 00 92 75
egape@egape.eus

Azkorte z/g, Urnieta.
943 89 94 25
egapebhi@egape.eus

Eskola Jasangarria Ziurtagiria

KALITATEA HEZKUNTZAN